

DIRU-ITURRIAK

Gure aplikazioaren arrakasta bermatu ahal izateko, argi geneukan oso garrantzitsua zela diru-sarreraren iturriak dibertsifikatzea. Horrela, balorezko proposamena ahalik eta gehien aprobetxatuko dugu eta bezero berriengandik soilik dirua lortzea saihestuko dugu. Modu honetan, gure diru-sarrerak handituko dira egonkortasun ekonomiko handiagoa lortuz.

Gure proiektuaren kasu bereziari dagokionez, kontutan hartu behar dugu, alde batetik, sozietate mugatua eta aplikazioa sortzeak hasierako inbertsio handia eskatzen dutela; eta, beste alde batetik, bezeroak erakartzeko, aplikazioak doako 15 eguneko demo bat ematen duela. Horretarako, finantzaketa-iturriak zentzuz eta zuhurtziaz zehaztu behar ditugu.

Hala ere, diru-iturriak lortzeko garrantzitsuen bezeroak zenbat ordaintzeko prest dauden jakitea da. Ildo beretik jarraituz, esan behar dugu, merkatu-azterketa bat egin ondoren, konturatu ginela uste genuena baino jende gehiago dagoela APPEDENTZIA bezalako aplikazio batengatik dirua ordaintzeko prest. Beraz, bezeroen kopuru potentziala uste genuena baino handiagoa da.

Gainera, negozio-idea aplikazio baten bidezko zerbitzua denez, zenbat eta deskarga eta saio gehiago ireki, orduan eta erakargarriagoa izango zaie enpresei haien publizitatea txertatzeko. Adierazitako guztia oinarri hartuta, honako hauek izango dira gure diru-iturriak:

- **Ordainketa bakarreko diru-sarrerak:** aplikazioaren hasierako deskarga. 15 eguneko doako demo bat dago, eta, ondoren, aplikazioa deskargatzeko 5 euro ordaindu beharko dira. Prezio finkoa da, eta lizentzia bidez ordainduko da.
- **Ordainketa errepikariengatiko diru-sarrerak:**
 - Aplikazioaren hileko kuota: hilean 0,5€ ordaindu beharko dira. Beraz, prezio finkoa da eta urtean 6€ izango dira.
 - Publizitateko diru-sarrerak: horien prezioak dinamikoak dira, iragarki kopuruaren eta enpresarekin egindako kontratuaren arabera. Batez ere, AdNetwork-k eskaintzen duen prezioa finkoa ez delako, eskaintza eskariarekin zuzenean lotuta dagoelako eta baloreak etengabe aldatzen direlako burtsan gertatzen den bezala. Horri dagokionez, publizitatea deskargatzen denean eta saioa hasten denean bakarrik agertuko da. Bestela, gure aplikazioaren erabilgarritasuna eta kalitatea txikiagoa izango litzateke.

Diru-sarrerak eta ehunekoak hurrengo taulan eta grafikoan adierazi ditugu:

AURREIKUSPENA	Espanian 300.000 pertsona daude adimen-urritasunarekin eta 70.000 pertsona itsuak dira.	Horietatik, 2018 farmazia industriak egindako inkesta baten arabera, 256.190 pertsona 7 eta 79 urteren artean daude.	Aurreikusten dugu %30 pertsonak APPEDENTZIA erabiliko dutela= 76.857 pertsona.
DIRU-SARRERA MOTA	KONTZEPTUA	€/UNITATEKO	GUZTIRA
Ordainketa bakarreko diru-sarrerak	Deskarga	5€/erabiltzaile	384.285€
Ordainketa errepikariak	Lizentzia	6€/urtean	461.142€
	Publizitatea	"Teknologia"-ren (45€/CPC) edo "software"-ren (35€/CPC) nitxoan barruan egon daiteke.	Hasierako urteetan publizitatea diru-sarreraren %10 izatea aurreikusten dugu. Baina, hurrengo urteetan %30 izatera hel daiteke= 85.000€ - 250.000€-ren artean.

